

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
1.564 hildako EAEn
2.313 positibo guztira*
*Hernanin 60 Astigarragan 20

NAFARROAN

4 positibo berri
515 hildako
5.306 positibo guztira
Sendatuak EAE: 16.853. Nafa: 6.529



Azkenean zabalik, Zubimuxu

GOIZUETA
REGINA BRÜCKER

15



Herri gero eta haundiagoa, infernu txiki

ASTIGARRAGA
TELEBISTA

8-9



Ramadanaren bukaerako ospakizunik ez, aurtengoan

HERNANI
ARRISALA ELKARTEA

2-3

Santio jaiak ere bertan behera, aurtengoan

ASTIGARRAGA
SANTIO JAIK

7



«Liluratuta», Hernaniko 'eguneroko' altxorrekin

HERNANI
HARITZ MUÑO

4-5



Emakumeen gorputz eta jarrerak, hizketan

Berriro ekin diete argazki saioei, Nagore Legarretaren eskutik, Astigarragako Emakumeon Plazako murala osatzeko. Herriko 120 bat emakumek hartuko dute parte, eta «sekulakoa esperientzia kolektiboa» ari da izaten, argazkilariak azaldu duenez. Argazkia: Nagore Legarreta

13



Kalitatezkoa bada,
gorria da
Si es de calidad, es roja

euskal
sagardoa

Sidra natural del País Vasco



Altzueta sagardotegiak

Udaran ateak zabalduko ditu

Terrazako giroan, menu zabalagoa aukeran eta Euskal Sagardoa botilan.

Gozatu Altzueta beste modu batera!

Erreserbak:
943 55 15 02 edo altzueta@altzuetasagardotegia.com

Irekiera ekitaldia
ekainaren 19an, afaritan.

Bertso Dastatze Gidatua:

- Mikel Garaizabal enologo-sumillerra
- Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariak.

«Ramadana ongi egin dugu etxean, baina azken eguneko festa haundian ezin izan gara elkartu»

Musulman komunitateak aurten apirilaren 23tik maiatzaren 23ra bitarte egin du, egunsentitik ilunabarrera arteko baraualdia, eta aurten pandemiaren erdi-erdian suertatu zaie.

HERNANI ARRISALA

Urumea bailarako komunitate musulmanari, kalteak ekarri dizkio konfinamenduak. Deseskalada faseak, egunerokotasunean, normaltasunera itzultzea suposatu du, baina eliz katolikoetan ez bezala beraien kulturako erabiltzen duten zentro kulturala, Zikuñagan, ezin izan dute oraindik zabaldu.

«Gainera pandemia honek Ramadana erdi-erdian harra-patu du», Hernaniko Arrisala elkarteko kideek dioten bezala. Ramadana islamdar egutegiaren bederatzigarren hilabetea da. Hilabete hori mundu osoan ezaguna da musulmanek egun horietan, eguzkia ateratzen denetik sartu arte egiten duten baraualdiari (sawm) esker. Ramadanezko baraualdia eguzki-orduetan egiten da; soilik jan daiteke eta ura hartu egunsentia baino lehen eta ilunabarren ondoren.

Musulmanen erlijioan garrantzi handia du Ramadana, funtsezkoa. Urtero Ramadan hilabetea data desberdinetan ematen da, ilargi egutegiaren arabera, eta aurten apirilaren 23a eta maiatzaren 23a bitartean egin da.

Kontuan hartu behar da garaia arabera baraualdia luzeagoa edo motzagoa dela. «Neguan suertatzen bada Ramadana gurean motzagoa da, 12 ordukoa adibidez, eta udan luzeagoa, 16 ordukoa».

Baraualdia egiteko, Islaman aginduen arabera, pertsona helduak izan behar dira, buruko osasunez ondo daudenak eta bidaiatzen ari ez direnak. Emakumeak, bestetik, hilekotik kanpo egon behar du eta baita

ere puerperiotik kanpo. Horren arabera, hauek dira salbuetsita dauden taldeak: haurrak, buru-gaixoak, haurdun dauden emakumeak, hilekoan dauden emakumeak eta ahulak dauden pertsonak, bereziki agureak.

Funtzio komunitarioa ere badu beste funtzioez gain eta hori ezin izan dute bete aurten

Horrela, hilabete sakratu honek funtzio erlijiosoa izateaz gain, funtzio sanitarioa (gorputza garbitzen du), mentala (borondatea indartzen du) eta morala (elikagairik ez duten pertsonak jasaten dutena ulertaraztea) ditu. «Ezin izan dugu amaitzean egiten den ospakizuna denak elkarrekin egin» dio Mohammed Rkiuakek.

Ramadanaren beste ezau-garri nagusia da komunitatea elkartzeko balio duela. «Hilabete hau komunitatearen hilabetez hartzen da, eta musulmanei bizilagunei laguntzeko eskatzen zaie, bereziki behartsuenei, eta familian denbora gehiago igarotzeko behar-beharrezkoa ez den guztia atzeratzeko. Ramadanean, jendeak eskuzabalagoa, lagunkoiagoa eta adeitsuagoa izan behar du besteekin».

Rkiuaken esanetan hori izan da kalte gehien sortu duena. «Ramadana orokorrean ongi eraman dugu, bakoitzak bere etxean egiten du eta ez du aldaketa askorik suposatu. Hori bai, komunitatea indartzearen alde hori ezin izan dugu aurrera eraman. Ramadana amaitzean edo amaitzean dagoenean ospakizuna antolatzen dugu eta aurten ezin izan da antolatu. Hernani eta inguruetako komunitate musulmana elkartu gabe gera-



Ramadanezko azken eguneko festan besarkadak ohikoak izaten dira.

«Behartsuenei laguntzeko ere bada Ramadana. Jendeak eskuzabalagoa da»

tu gara. Beste aukerarik ez zaigu geratu. Gobernuak arauak ezarri ditu eta guk bete egin behar ditugu arau horiek, ez dago besterik».

Egutegi musulmanean, urte bakoitzak 12 ilargi ziklo edo hilabete ditu eta, bakoitzak, 29 edo 30 eguneko iraupena du. Horrela, musulmanen urte batek 354 egun izango lituzke, gure egutegiko 365 egunen orde. Alde horrek azaltzen du Ramadana 10 eta 11 egun artean aurreratzen dela urtero. «Datorren urtean apirilaren 12an hasiko da eta maiatzaren 11n amaituko da».

«Gobernuaren arauak zorrotz bete ditugu eta datorren urtean elkartuko gara»

Ordurako pandemiaren arazoa konponduta egotea espero da eta ospatzeko aukera egotea espero dute. «Amaierako festa, komunitate hori indartzeko ospakizuna, egitea espero dugu. Bertan bata besteari besarkatzen diogu, esku ematen diogu... denak pozik egoten gara eta laguntasun hori indartzen da».

«Udalari esker aurreko urteetan frontoia edo Elizatxo ikastolan egin genuen festa»
Hala ere etxean ongi pasa dute Ramadana. «Aurreko urteetan, Udalari esker, lokal batzuk

«Ettxerik gabeko adingabeei ezin izan diegu janaririk eman aurten Zentroan»

uzten zizkigun elkartzeko eta baita kiroldegiko frontoia eta Elizatxoko ikastola ere bai. Hor elkartu izan gara azken festa ospatzeko. Elizatxo ikastolan udara batean umeak jai zute-nean bertan antolatu genuen festa eta ederki egon ginen».

Udalak kolaborazio lana egiten duela azpimarratzen eta eskertzen du Rkiuakek. «Orain geldirik gaude eta zentroa itxita egon da, ez dago ezer antolatzerik. Horrelako egoera guretzako ere zerbait berria da, nik ezagutu ez dudana. Mundu osoa geratu du birus ikusezin honek».

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Epota: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK**



Hernaniko Zentroan 55-60 lagun elkartu izan dira.

Botere haundiak ere humil-
du dituela dio. «Non geratu dira
botere ekonomikoak, estatu in-
dartsuak... pentsa gu bezalako
komunitate bat. Birus honek
sortzen duen gaixotasuna men-
deratzea espero dut eta ea gau-
zak bere onera itzultzen diren».

«Guk zaila dugu normaltasunera itzultzea, txertoa aurkitu arte»

Pertsonen arteko distantziak
mantendu behar horrek ere
kezkatzen du Rkiuak. «Konfian-
tza galtzen da, ez da berdina,
eta justua ere ez dela uste dut.
Beldurra dugu, oraindik ez da-
goelako txertorik, eta horrek
distantzia eta neurriak hartu
behar direla esan nahi du. Guk
zaila dugu».

«Ramadanaren gauzarik
ikusgarriena denak elkartzen
garenean da» dio Mohammed.
«Azken egunean antolatzen
da eta guk maiatzaren 30ean,
aurreko astean antolatu behar
genuen. Normaltasunean jende
asko bilduko ginen Kultur Zen-
troan eta gero Elizatxora joan-
go ginen elkarrekin». Bakoitzak
bere etxean ospatu zuen ahal
zuen bezala familiarekin. «Ez
dugu beste erremediorik izan».

Ramadana askorentzat la-
guntzeko garaia izaten da eta
aurten beldurrarekin ez da
posible izan. «Euskal Herrian
badaude gazte musulmanak
etxerik ez dutenak eta familia-
rik ere ez dutenak. Adingabeen
zentroetan bizi dira eta Rama-
dan garaian lagundu egiten die-
gu janaria emanez. Aurten po-
brea izan da eta ezin izan dugu
gauza askorik egin. Plateren ba-
tzuk prestatu dira eta eraman
zaizkie, baina aurreko urteetan
hona, Zentrora, etortzen ziren
eta gurekin jaten zuten. 20-25
adingabe gure artean hartzen
genituen eta aurten ezin izan
dute beraien zentroetatik irten».

Beste urteetan gaueko bede-
ratzietan etortzen ziren Herna-
nira eta hamarretan bueltatzen
ziren. «Ordutegi finko bat izaten
dute eta pixkat luzatzen zen Ra-
madan-ean eta azken bi aste
hauek arte ezin izan dira irten».

«Telefonoz egon gara kontaktuan»

Hernaniko musulman komu-
nitateak kontaktua mantendu
du konfinamenduan telefono
bitartez. «Deitzen genion elka-
rri eta mezuak whatsapp bi-
dez bidali ere bai, ea zer moduz
geunden galdetzeko. Zer egin zi-
tekeen planteatu genuen, baina
gu agintariak esaten dutenaren
menpe gaude, denak bezala, eta
ezin genuen ezertxo ere egin.
Musulmanen Elkarteak esango
digu zer pauso eman ditzake-
gun. Elkarteak kontaktuan dago
zentro guztiekin».

Hernaniko Zentro Musulma-
na erreferentzi bihurtu da ingu-
ruko musulmenentzat. «Herri
desberdinetatik etortzen dira.
Hemen elkartzen gara ostirale-
tan. Ez dago beste lekuri herrian
elkartzeko. 2014an ireki zen eta
oso ongi gaude, herritik zerbait
aldenduta egon arren. Herrian
arazoak sortzen dira eta badago
jendea onartzen ez duena. Fama
txarra sortu da, askotan ezagu-
tzen ez delako beste pertsona».
Zikuñagako Zentroan bertan ere
poliziaren presentzia askotan
izan dutela dio Rkiuak. «Hasie-
ran, askotan egoten ziren zela-
tan. Gu hona elkarrekin egotera
eta Corana irakurtzera etortzen
gara, besterik ez».

Herrialde musulman guztie-
tako jendea elkartzen da bertan.
«Marokoarrak, argeliarrak, se-
negaldarrak, sahararrak, uzbeki-
arrak, pakistandarrak...dene-
tarik. Musulman guztientzako
sortu zen, ez herrialde batekoen-
tzat. Denak berdina gara eta
erlijioak lotzen digu. Hemen eza-
gutu gara asko eta asko. Kanean
ez gara ezagutu eta ez dakigu
askotan musulmana den edo ez.
Zentroak gure arteko kohesioa
indartu du. Hemen ezagutu gara
elkar eta erlazioa sortu da».

«Ea posible dugun Arkumearen jaia egitea»

Arkumearen Jaia, uztailaren 31n
hasita hiru egunez ospatuko da.
«Ea posible den egun haundi hori
ospatzea. Ikusiko dugu. Ederra li-
tzateke, baina ez dago gure esku,
hemen elkartzea erretratatzeko». **K**

«Epe motzean ezin dugu Hernaniko Zentro Kultural Musulmana zabaltu»

Mohammed Rkiuaken esanetan «musulmanak bata bestearen ondoan
egin behar dugu errezoa eta oraingo arauekin hori ez da posible»

HERNANI KOMUNITATE MUSULMANA

Ramadanari ez hainbeste, bai-
na kalte asko Zikuñagan koka-
tuta dagoen Hernaniko Zentro
Kultural Musulmanari egin
dio pandemia honek Moham-
med Rkiuak ongi azaltzen
duen bezala. «Itxita dago, ezin
dugu elkarrekin komunitatean
errezorik egin, ezin gara elkar-
tu. Guk bata bestearen ondoan
egiten dugu errezoa, horizonta-
lean hankak hankekin egoten
gara ukitzen eta horrek ez ditu
orain dauden arauak betetzen.
Bata bestearen artean ezin du
distantziarik egon adibidez eli-
zan posible den bezala. Gure
erlijioan horretarako hobe da
etxean errezatzea».

Hori da beraz musulmanak
egiten ari direna, etxean erreza-
tu. «Lokala irekita zegoen bitar-
tean bertara etortzen ginen el-
kartu, hitz egin eta errezatzea,
baina itxita dagoen bitartean
ez gatoz. Ezin dugu ezertxo ere
egin. Orain gainera sartu aurre-
tik dena ongi garbitu beharko
genuke, arau sanitarioak bete-
tzeko, desinfektatu, alfombrak
garbitu... denetarik egin behar
da ongi egoteko. Derrigortu egin
gintuzten ixtera, eta guk itxial-
dia bete dugu, esan bezala».

Alarma egoera sartu zen
egun horretan bertan itxi zu-
ten zentroa eta irekiera orain-
dik urruti ikusten du Rkiuak
nahiz eta deskonfinamendu
garaian egon eta aktibitatea
itzuli edukiera mugatuarekin.
«Lehen aipatu dudana bezala
hori ez da posible gure kasuan
bata bestearen alboan erreza-
tzen dugulako. Horregatik ez
dut posible ikusten irekitzea
epe motzean. Atean itsatsita
daude bete beharreko arauak
eta debekatuta dago sartzea».

Bat sartu daiteke edo bi, bai-
na aldenduta eta distantziak
mantenduz eta hori ezinezkoa
da guretzat».

«%30era edo %50era ez dugu zabalduko»

Yumu 'ah musulmanen otoi-
tza edo azala (salat) ostiralero
ospatzen da, eguerdia baino
pixka bat geroago. Asteko bes-
te egunetan egindako Dhuhr
otoitza ordezkatzan du. Gizo-
nentzako betebeharra da beste
musulman batzuekin batera
(yama' ah). «Jende asko biltzen
da hemen ostiralero. Guk zaila
dugu orain elkartzea, nahiz eta
hirugarren fasean sartu aste-
lehenean, distantzia ezin du-
gulako mantendu, %30era edo
%50era ezin dugu ireki. Bertan,
55-60 pertsona sartzen dira eta
ez da zabalduko 20-25 pertso-
nentzako bakarrik. Horretara-
ko ez dugu zabalduko agindu
berria izan arte. Agintariak edo
musulman komunitateak posi-
ble dela esaten duenean ireki-
ko ditugu ateak aurretik dena
ongi garbitu eta desinfektatu
ondoren».

Beldurraren mamua ere
aipatzen du Rkiuak. «De-
nak dugu beldu hori, asko ezin
gara hurbildu. Jende asko hil
da, adinekoak batez ere, nire
adineko jendea». Rkiuak 70
urte ditu. «Errespetoa sortzen
du pandemia honek. Gustatu-
ko litzaiguke normaltasunera
itzultzea, baina oraingoz ez da
posible».

«Gu beti taldean elkartu gara eta orain urrutitik agurtzen gara»

Musulmanak gainera kultu-
ralki asko besarkatu, kasu egin
eta hurbil egotekoak dira bere
hitzetan. «Gu beti gaude tal-

dean bata bestearen ondoan.
Orain urrutitik agurtzen gara».
Agintarien esanetara eta agin-
dupean dagao orain komuni-
tate musulmana, baita Herna-
nikoa ere. «Guk ez dakigu zer
gertatuko den, baina argi du-
guna da %100ean bakarrik ire-
kiko dugula. Oina oinarekin el-
kartuta egon behar du eta ezin
dugu elizan bezala distantzia
mantendu».

Normaltasun berria iris-
tean musulmanen federazioak
zer agindu ematen duen zain
daude Hernaniko Zentro Mu-
sulmanean. «Abisatuko digu-
te zer egin daitekeen edo zer
egin behar dugun. Gobernu edo
agintarietatik datozen legeak
eta arauak zorrotz betetzen di-
tugu, besterik ez. Osasuna da
agintzen duena».

«Baldintzak bete eta zabaltze- ko zail ditugu gauzak»

Musulman komunitateak arau-
ak betetzeko garaian zorrotz be-
tetzen ditu. «Horrela izan behar
du. Errespetua beharrezkoa da,
errespetua duzun bitartean,
zuri ere errespetatuko zaituzte,
ez dago besterik».

Zikuñagako Zentroan as-
tean zehar lan egun normal
batean hiru, lau, bost pertsona
egoten omen dira normalean.
«Ostiralean 20-30-40 elkartu
gaitezke bertan».

Arau berriekin maskarillak,
desinfekzio xaboiak, garbike-
ta... zein baldintzetan zabaltze-
ko den ikusi behar dute. «Bal-
dintzak betetzen ez baditugu
ezingo dugu ireki. Egia esan
zail ditugu gauzak elkartzeko
eta erretratatzeko ditugun ohi-
turengatik. Noiz arte itxaron
beharko dugun ez dakigu. Iku-
siko dugu. Eskerrak Ramadana
ongi pasa dugun».

TAMER
TABERNA

Ireki ditugu ateak
berriz ere!

**EGIN ZURE
ERRESERBA**

MENUA ETA KARTA

943 33 08 58
Astelehen eta asteartean itxita

ERRIOGUARDA - ENEA
J A T E T X E A

ASTEARTEA, IREKITA
ekainak 9,

Kartaz eta eguneroko menuaz gain,
plater bat eta postrea, plater konbinatuak
eta janaria etxera eramateko aukera.

Iturriaga kalea, 10. Hernani Tel: (943) 33 02 91



Haritz Muñoa, Koronelarria edo Ingelesaren Harriaren ondoan, Jauregi bailaran. Hori da aztertu duen ondare elementuetako bat, Aro Modernoko hiliarria, XVIII. mendekoa.

«Liluratuta geratu naiz, egunerokoan ikusten ditugun eraikin eta elementuen historiarekin»

«Ilusio eta motibazio haundiz» hartu zuen Hernaniko Kultur Ondarea eguneratu eta berraztertzeke lana, Haritz Muñoa historialari hernaniarrak; eta orain arteko esperientziak asebetu du: «gehien harritu nauena da, Hernanin dugun kultur ondarearen zabalera».

HERNANI HARITZ MUÑOA

Historialaria da Haritz Muñoa hernaniarra, txikitatik iraganarekiko zeukan interesari segika. Artxiboen eta Liburutegien Kudeaketan masterra bukatu berri, «interes haundia» pizten dion proiektu batekin ari da lanean: Hernaniko Kultur Ondarea eguneratu eta berraztertzen ari da, Udalaren beka jaso ondoren. Otsailean ekin zion, eta osasun alarma egoerak lana zaildu badio ere, orain arte topatutakoak zentzu onenean harritu du: «askotan ez gara ohartzen Hernanin daukagun kultur ondarearen aberastasunaz, eta uste dut beharrezkoa dela herritar orok horren jakintza eta ezagutza izatea», azaldu du Muñoak.

Hernaniko kultur ondarea aztertzeko beka jaso duzu. Nola hartu zenuen albistea? Ilusio haundiz. Azaroan aurkez-

tu nuen proiektua eta urtarri-lean onartu zidaten. Berehala eman zizkidaten lana gauzatzeke jarraibideak eta gogo haundiarekin ekin nion lanari.

Motibazio eta ilusio haundia zeneukan jarrita proiektu honen gainean?

Entzuna neukan aurretiaz udalletxeak beka hauek banatzen zituela, eta beti izan dut jakinmina Hernaniko kultur ondarearen inguruan. Interes haundia pizten didan proiektua da, eta motibazio berezia eragiten dit, bai.

Hernaniko kultur ondarea berrikustea eta eguneratzea da zure proiektuaren helburua. Azaldu zabalago, zein den zure asmoa.

Hasieran aurkeztu nuen proiektuaren helburua zen *ondarea.hernani.eus* webgunean jasota dauden elementuak berrikus-

tea eta eguneratzea; baina epaimahaikideekin eginiko bileran, lehentasunak mahai gainean jarri zizkidaten: Hernaniko Arau Subsidiarioetan, eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko inbentarioetan jasota dauden elementuak berraztertzea eta eguneratzea. Haue-tan dauden akatsak zuzentzea eta deskribapen zuzenak egitea zen asmoa. Lan haundia da, eta bere zabalera dela eta, hainbat faseetan banatzea erabaki dut. Momentuz Kaxkoko eta inguruko eraikinetan eta katalogatu-tako ondarean jarri dut arreta.

Zergatik behar du berrikuspen eta eguneratze hori, kultur ondareak?

Esan bezala, aipatutako inbentari horietan akatsak eta zuzenak ez diren datuak jasota daudelako. Esaterako, egun desagertu egin diren elementuak ageri dira; besteak beste, Casa del Sevillano (Kale Nagusia), Villa Manolita (Urbietza kalea), Zikuñagako ermita...

Nola planteatzen duzu gaia? Nola helduko diozu eta zein iturritara joko duzu?

Proiektuan planteaturiko krograman, lana hiruzpalau fase-tan banatu nuen. Lehen pauso

gisa elementuen informazio eta datu biltzea planteatu nuen, eta horretan aritu naiz orain arte. Udal artxiboan espediente ugari kontsultatu ditut, baita Eusko Jaurlaritzako inbentarioan ere. Hurrengo pausoa izango da

«Historia gizarte bat eraikitzeke funtsezko tresna da; azken finean, norberaren identitatea eraikitzen baita iraganarekiko duen pertzepzioaren baitan»

aztertutako elementu bakoitzari fitxa bat egitea, deskribapen zuzen bat eginez eta ezaugarriak azpimarratuz. Horietan, iraganeko argazki ezberdinak gaur egungoekin konparatzea ere bada asmoa. Bukatzeko, ondarea birpasatzea eta memoria idaztea izango da azken pausoa.

Eta zein modutara nahiko zenuke hori guztia herritarren eskura jarri, behin berrikusi eta eguneratuta?

Hori ez dago nire esku; Udalak azken txostena aztertuko du, eta horren arabera erabakiko da lanarekin zer egin. Aurreproiektuan planteatu bezala, ondo legoke aztertutako elementuen gida moduko bat egitea, erabilgarria izan daitekeena herritarren ondare kulturala modu erosoan ezagutzeko; besteak beste, herrian egiten diren bisita gidatuetan erabiltzeko. Hala ere, pentsatzen dut txertatuko dela *ondarea.hernani.eus* webgunean, eta honen aurkezpen publiko bat egingo dela, lanaren nondik norakoak azaltzeko. Baina hori Udalak aztertuko du.

Dagoeneko ari zara horretan lanean, ezta? Zer kontatu dezakezu aurreneko hilabeteetako lanari buruz?

Bai, epaimahaiak berehala eman zizkidan jarraibideak, eta lanean hasi nintzen. Esan bezala, orain arte datuak biltzen aritu naiz Udal artxiboan, bibliografia ezberdinak kontsultatzen, eta Eusko Jaurlaritzako inbentarioa aztertzen. Datu bilketa sakona izan da, eta informazio ugari bildu dut iturri ezberdinetatik. Eta kasu batzuetan, harridura haundia sortu dit datuen kontraesanak. Aipatzekoa da aldi berean lanaren za-

balera, kategoria ezberdinetan eta babes-maila ezberdinetan ondare-elementu asko baitaude Hernanin.

Orain arte topatu duzunetik, zein izan dira gauza harrigarrienak edota politenak?

Gehien harritu nauena da Hernanin dugun kultur ondarearen zabalera. Gure egunerokoan ikustera ohituta gauden eraikin eta elementuek duten historiaz eta garrantziaz ohartu naiz, eta liluratuta geratu naiz. Horregatik, bildu ditudan datu guztiak batzea eta behin betiko deskribapen zuzen bat egitea izango litzateke aportazio haundiena. Bibliografia birpasatzen, *Hernani* urtekaria adibidez, elementu berri bat edo beste inbentarioetan sartzea planteatu nahi dut, sailkapen eza dutenak eta garrantzia haundikoak iruditzen zaizkidanak, baina hori Udaleko ordezkariekin eta epaimahaikideekin adostu behar den zerbait da.

Egungo alarma egoerak zaildu edo eten egin du zure lana ere? Bai, ezin izan ditut kanpo lanak burutu, espedienteen fotokopiekin eta bibliografia digitalekin aritu behar izan dut lanean. Eusko Jaurlaritzako inbentario orokorra internet bidez kontsultatu daiteke, baina ezin izan ditut elementuen fitxak kontsultatu, Gasteizen baitaude. Aurrerantzean, Aldundiko inbentarioa kontsultatzeko aukera izango dudala pentsatzen dut, eta argazkiak egiten eta elementuak bisitatzen hasiko naiz.

Oro har, nolakoa esango zenuke dela Hernaniko kultur ondarea?

Oso aberatsa. Nahiz eta ez garen ohartzen, ondare kultural balio haundiko herria dugu, babes-maila haundi, ertain edo oinarritzko elementu asko ditugularik. Euskal Autonomia Erkidego mailako, probintzia mailako edota udal mailako ondare-elementu ugari daude Hernanin, eta horiek ezagutzea, errekonozitzea eta babestea da lanaren asmoa.

Zergatik aukeratu zenuen gai bezala, kultur ondarea berrikusi eta eguneratzea?

Udalak Hernaniko Kultur Ondarea aztertzeke egin zuen deialdia, eta hori zen gai nagusia. Nik aurretiaz ezagutzen nuen *ondarea.hernani.eus*, beste iturri batzuekin batera, herriko kultur ondarearekiko interes haundia nuelako. Bertan ageri den informazioa berritzeko premia sentitu nuen, eta nire aurreproiektuan hori aipatu nuen helburu nagusi gisa; bertan ageri diren

«Oso aberatsa da Hernaniko kultur ondarea. EAE, probintzia eta udal mailako ondare elementu ugari daude Hernanin, eta horiek ezagutu, errekonozitu eta babestea da lanaren asmoa»

elementuak sakonki aztertzea, alegia.

Eta zer nolako interesa izan dezake edo izan behar luke horrek, herritarrentzat?

Aipatu bezala, askotan ez gara ohartzen Hernanin daukagun kultur ondarearen aberastasunaz, eta uste dut beharrezkoa dela herritar orok horren jakintza eta ezagutza izatea. Horrekin batera, herriko kultur ondarea ezagutzea ezinbestekoa da hau errespetatzeko eta miresteko ere. Turismo arloan adibidez, erabilgarria izango litzake ho-

«Iraganarekiko interesa izan dut beti, eta familiak eskura jarri izan dizkit iturri ezberdinak, jakinmina asetzeko; bereziki aita eta osabak, txikitatik liburu eta dokumentazio ugari eman baitidate gai historikoen inguruan»


rrelako lanak izatea, herriko eta kanpoko bisitariei erakusteko.

Historialaria zara. Zer dela eta? Nork sartu zizun harra?

Txikitatik gustatu izan zait historia. Iraganarekiko interesa izan dut beti, eta familiak eskura jarri izan dizkit iturri ezberdinak eskura, jakinmina asetzeko; bereziki aita eta osabak, txikitatik liburu eta dokumentazio ugari eman baitidate gai historikoen inguruan.

Zer nolako ikerketak, proiektuak edo lanak egin dituzu aurretik?

Aurreko urtean graduatu nintzen Historian. Graduan zehar hainbat lan burutu ditut Euskal Herriko ondarearen inguruan; besteak beste, Aro Berriko base-ri bizitzaren, Ameriketara emigratutako euskaldunen edota



Haritz Muñoa, etxeko 'bulegoan' lanean. Alarma egoera tarteko, ezin izan ditu kanpo lanak egin, orain arte.

euskal gizartearen bilakaeraren inguruan.

Hernaniko edo inguruko historiari buruz ere egin duzu lanik?

Hernaniko eta inguruko ondareari buruzko jakintza nire kabuz garatu dut, zenbait iturri ezberdin aztertuz.

Ari zara historialari gisa lanean? Aukera asko dituen lanbidea da, edo zaila da horretan lan egin ahal izatea?

Egia esan, lizentziatu berria naiz. Artxiboen eta Liburutegien Kudeaketan masterra egin dut, eta orain ari naiz ikasten Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakas-kuntzako Irakasleen Prestakuntzarako masterra. Zaila ikusten dut gaur egun historialaria izatea. Horretara dedikatzeko, beste lanbide bat behar dela uste dut, erakunde zientifiko baten partaide edota unibertsitateko irakasle izatea, adibidez.

Uste duzu behar besteko balioa ematen zaiola historiari?

Askotan entzun behar izan dut, historialari izateak zertarako balio duen, edota historia ikasteak zertarako balio izan didan. Nire ustez, historia gizarte bat eraikitzeke funtsezko tresna da; azken finean, norberaren identitatea eraikitzen baita iraganarekiko duen pertzepzioaren baitan, historia izanik hizpide.

Zer ematen digu historiaren ezagutzak?

Funtsean, historiak iraganeko esperientziak norbanakoaren esperientzia pertsonalean sustatzen du, memoria kolektibo bat eta identitate bat eraikiz, hurrengo belaunaldiek ere historiaren bidez jarraitu dezake-

tena. Laburbilduz, historiaren jakintzak gure nortasuna ezagutzea ahalbidetzen du, eta horretarako garrantzitsua da gure inguruan dugun ondarearen balioaz jabetzea eta honek daukan garrantzia ezagutzea, nortasunaren lekuko baitira.

Badaukazu harremanik inguruko historialariekin?

Nahiz eta modu ez oso aktibo batean, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea naiz. Ezagutzen ditut bertako kide batzuk zuzen-zuzenean historiara dedikatzen direnak, arkeologia eta etnologia arloan. Honekin batera, Hernaniko historialari batzuen lanak eta artikuluak ere irakurri

ditut; baina haiek guztiek dute beste lanbide bat; kazetari, artxiboko teknikari edo irakasle, besteak beste.

Nolako proiektuak garatzea gustatuko litzaizuke aurrera begira? Zein dira gehien erakartzen zaituzten gaiak?

Etorkizunean proiekturen bat burutzekotan, gustatuko litzaidake izatea Euskal Herriko ondarea lantzea edo ezagutaraztea helburu duen bat. Arkeologian edo etnografian lanen bat burutzea ere gustatuko litzaidake, baina gaur egun bizi dugun egoerarekin, zaila ikusten dut. Ikusiko dugu etorkizunak zer ekartzen duen. **K**

biokbi optika

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia

Antziola 14
Telf: 943 33 68 86

GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EGIN DIOGU, COVID-19REN AURKAKO SEGURTASUN-NEURRI GUZTIEKIN

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu alde zuzenetik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.

Udal baratzen erabiltzaile izateko prozesua, martxan

Udal baratzetan parte hartzeko prozesua irekita egongo da, ekainaren 11ra arte.

HERNANI UDAL BARATZAK

COVID-19a dela eta bertan behera geratu ziren epe administratiboak, baina orain berriz jarri dira martxan eta Udal baratzetan parte hartzeko prozesua berreskuratu du Udalak. Eskaerak egiteko epea datorren ostegunean amaituko da, hilak 11n.

Baratze parkeak guztira 30m2-ko 72 partzela izango ditu, eta bi eremu artean banatuko dira: Antziolan 26 partzela eta Sagastialden, aldiz, 46. Udalak adierazi du Baratze Parkea «barazkigintza ekologikoan» oinarrituko dela. Hori dela eta, «esleipendunak behartuta egongo dira, lursaila eskuratu baino lehen, Udalak eta Ekoguneak antolatutako nekazaritza ekologikoei buruzko prestakuntza ikastaro bat egitera, lursailak era egokian ustiatuko direla bermatzeko».

Onuradun izateko, bete beharreko hainbat baldintza
Udalak zehaztu du onuradun izateko aukera izango dutela «Hernaniko udalerrian eskaera aurkezteko epea hasi baino 6 hilabete lehenago erroldatuta dauden pertsonak».

Hala ere, zehaztu du beste hainbat baldintza bete beharko dituztela: Hernaniko Udalarekiko zerga-betebehar guztiak egunean izatea, aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea, beste baratze ekologiko baten erabiltzaile den bazkide-tza-unitate bateko kide ez izatea eta ez edukitzea, ez jabetzan, ez alokairuan, nekazaritza-jardue-



Datorren ostegunean amaituko da zozketan parte hartzeko epea.

rarako den lurrik. Gainera, onuradun den bitartean Udal-baratzteen erabiltzaileak Hernanin erroldatua jarraitu beharko du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa, tokia eta epea
Zozketan parte hartzeko interesa dutenek, nahitaez Udalak webgunean eskuragai duen eskabide-orria aurkeztu beharko dute. Jakinarazi du, eskabide-orriak behar bezala beteta aurkeztu beharko direla, Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke, eskaerarekin batera NANaren edo legez ordezkatzeko duen dokumentuaren kopia izango da beharrezkoa, eta baita baldintzak betetzen dituela egiaztatzeke zinpeko aitorpena ere. Azken hau Udalak aurkeztutako baldintza-agiriaren eranskinean dago eskuragai.

Behin dokumentazio guztia duela, Udalak «ofizioz egiaztatuko ditu errolda eta benetako egoitza, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-

-betebehar guztietan egunean dagoela».

Baratzak bi zozketen bidez banatuko dira. Lehenengoan zehaztuko da onartutako eskaeren artean partzela zeintzuk lortzen duten eta bigarreanean, partzela zehatzen banaketa egingo da.

Onuradun izanez gero, erabilera arau batzuk
Esleipedunek 30 euroko bermea jarri beharko dute, Udalak adierazitako kontu korrante zenbakian, eta itzuli egingo zaie esleipena bukatzen denean.

Gainera, emakidunak Udalari urteko kanon bat ordaindu beharko dio. Lehenengo urtean 60 eurokoa izango da, baina zenbatekoa eguneratu egingo da urtero. Lehenengo ordainketa emakidearen unean egin beharko da.

Udalak zehaztu du ongariari dagokienez debekatuta daudela sintesiko ongari organiko guztiak eta prozedura kimikoen bitartez lortutako ongari mineralak. Lurraren tratamenduari dagokionean ere, bete beharreko hainbat arau zehaztu ditu. **K**

«Nazkatuta gaude, erasotzaileak kanpora»

Orain arte gertatutako eraso sexualak salatzeke kontzentrazioa egin zen joan den ostegunean.

HERNANI BERDINTASUNA

Zartai hotsak eta erasotuak izan diren emakumeen aldeko keinuak izan ziren protagonistak, pasa den eguneko Tilosetako kontzentrazioan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ehunka pertsona bildu ziren eta gizon zein emakumeek, guztiek, orain arte gertatutako egoera tamalgarriak lau haizetara salatu zituzten. Dagoeneko hiru eraso «oso larri» izan dira eta Koordinadora Feministak akzio hauen aurrean «haserre» du, «nazkatuta» daudela helaraziz.

Erasotuek irakurketa hau egin zuten ekitaldian: «Hernanin eman diren eraso sexisten harira, erasotuak izan garen emakumeok honako mezua helarazi nahi dugu: Hernanin eman diren eraso zehatz hauek, denon erantzukizuna dira. Azken asteetan herrian zabaldu den gai bat izanik, honelako kasuen aurrean, tamalez, gertatzen den moduan, jendea bere iritzia ematen aritu da honen atzean dagoen ardura kolektiboari muzin eginez.

Eraso sexista hauen atzean pertsona erasotu batzuk gaude, baina eraso hauek ez dira pertsona zehatz baten kontua soi-

lik, egiturazkoa den indarkeria patriarkalaren baitan kokatzen baita; eta denon ardura da indarkeria hauek eman ez daitezkeen ardura kolektiboz eta konpromezu politikoz jokatzeko.

Prozesu hauek oso pertsonalak dira, beraz, jendea gai honekiko konpromezu errealek bat hartzeko prest ez dagoen bitartean, ez dugu haien iritzirik behar. Erasosetako ekiditea denon erantzukizuna den heinean, errespetuz, morborik gabe eta enpatiaz jokatzeko eskatzen dugu.

Salaketa honen abiapuntua, sendatze prozesu baten parte da. Inola ere ez da ahaztu behar, prozesu hauen erdigunean, erasotuak gaudela, gure zaintza, ongizatea eta erreparazioa. Eta inondik inora ez dugu onartuko seinalatuak izatea herriaren partetik, ez eta epaituak izatea ere.

Prozesuarekiko ekarpenik baduzu, aurpegia emanez eta herrian egunerokotik hasita ematen diren indarkeriei aurre egiten parte hartzera gonbidatzen zaitugu, eta ez Koordinadora Feministak egiten duen lana kritikatzeko. Izan ere, biolentzia da eraso sexisten aurrean erreparazio prozesuak gidatzen aritzen diren lana epaitzea; eta biolentzia da jendarte patriarkalak birsortzen dituen dinamika eta jarrera pasibo agresiboetan (zurrumurruak, ez sinistea, emakumeon bizipenak zalantzan jartzea...) geldirik geratzea.» **K**

Musika eskolan izen emateko epea abian da, ikasle berrientzat, ekainaren 12 arte

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Datorren ikasturteko izen-ematea hasi dute, musika eskolakoei. Gestio guztia «online izango da, gure web orrialde berriari esker», *musikaeskola.hernani.eus* webgunean. Hala ere, aukera hori ez dutenek, modu presentzialean egitea posible izango dute, aurretik hitzordua eskatuta.

**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Jai Batzordeak aurtengo Santio Jaiak bertan behera uztea erabaki du, osasun gomendioak jarraituta

Uztaileko azken asteburuan ziren ospatzekoak Santio Jaiak, baina alarma egoera dela eta bertan behera geratu dira, «publikoaren segurtasuna bermatzea ezinezkoa denez».

ASTIGARRAGA SANTIO JAIK

Urumea bailarako gainontze-ko auzo eta herrien modura, Astigarran festak ez dira egin- go, aurtengo. Oraingoz, behintzat, alarma egoera dela eta, ezinez-koa da ezagutzen ditugun mo- duan jaiak antolatzea. Hala ere, Udalak adierazi du «kultur eki- taldiren bat antolatzea» azter- tzen ari direla.

Aho batez erabaki da, jaiak bertan behera uztea
Asteazkenean bildu ziren he-



Segurtasuna bermatzea ezinezkoa denez, Santio Jaiak aurtengo ez dira betiko formatuan ospatuko.

rriko elkarteak eta Udaleko or- dezkariek jaien inguruan behin betiko erabaki bat hartzeko, eta «aho batez erabaki zen 2020ko Santio Jaiak bertan behera uz- tea». Batzordean ondoriozta- tu zenaren inguruan, Udalak

adierazi du «zenbait ekintzetan partehartzaileen segurtasuna inongo arazorik gabe bermat- tu zitekeela, baina ez ikustera doan publikoarena». Hain zuzen ere, arrazoi horrenatik geratu dira festak bertan behera.

Kultur jardueraren bat egiteko aukera egongo da, beharbada Batzordekideek adostu dute ekintza edo ekitaldiren bat egiteko aukera irekia dagoela. «betiere aforoa kontrolatuz eta une horretan indarrean dauden

segurtasun neurriak errespetatuz». Hala ere, guztia zehaztu gabe dago oraindik eta hilaren 25ean elkartuko dira berriro Jai Batzordeko kideak eta udal ordezkariak, 18:30etan, kultur etxeko aretoan. **K**

Prebentziorako kanpaina, ostalaritzan

Terrazak, tabernak eta jatetxeak ireki dituzte fase berri honetan. Hala ere, badirudi segurtasun arauak ez direla ondo betetzen ari.

GOIZUETA-ARANO KORONABIRUSA

Deseskalada fasean pixkanaka tabernak, terrazak eta jatetxeak ireki dira, aforo mugatuarekin. Horrelaxe egin dute, baita ere, Goizueta eta Aranoko ostalari- tzako lokalek. Hala ere, higie- ne eta distantzia segurtasunak ez omen dira ondo bete. Preben- tzioko Teknikariaren esanetan, «gure inguruan, ireki dituzten terrazek eta bertara hurbildu diren kontsumitzaileek neurri horiek orokorrean ongi betetzen ez dituztela ikusi dugu».

Kanpainaren helburua, segurtasuna bermatzea Horregatik, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak ostalari zein kontsumitzaileei zuzendutako kanpaina jarri du abian. Helbu- ru nagusia «terraza, taberna eta

jatetxeetako erbaileran segurta- suna bermatzea» da, eta bertan egiten den «kontsumo aukeren inguruan hausnartzea», baita ere. Kanpainaren bitartez, he- rritarrei neurri teknikoak gogo- rarazi nahi dizkiete, «higie- ne, distantzia, aforo eta jende kopu- ru aldetik».

Diote, garrantzitsua dela «bi- rusa oraindik hemen dagoela gogoratzea eta ostalarien lana errespetatzea eta bere esfortzua baloratzea». Horregatik, biru- saren sintomarik izan ezean etxean gelditzeko ardura gogo- rarazi dute.

Tabernak eta jatetxeak, «sozializatzeko gune dira»

Kanpainako arduradunek uste dute «lehen tabernetan egiten genuena, isolamenduan etxera trasladatu eta kontsumoa onli- ne bidezko sozializazioaren bi- dez» egiten dela. Honen aurrean kezka azaldu dute esanez, da- tuak ez dituztela, baina «arriku posible bat dagoela». Horregatik, elkarguneak, «ongi pasatzeko, hitz egiteko, partekatze- ko nahiz gozatzeko guneak direla» gogo- rarazi dute. **K**

ADITUAK ESANA

Zure txakurrari kosta egiten zaio etortzen deitzen diozunean?



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Egunero gertatzen zaion egoera da, eta ondorioak askotarikoak dira, baina beti negatiboak.

Zure txakurrak errepide bat zeharka dezake modu arrisku- tsuan, interesgarria iruditzen zaion estimulu baten atzetik joan daiteke, parkea irauli dezake haurren pilotaren bila etab. Zalantzarik gabe, horrela- ko egoerak ez dira esperientzia atseginak, eta, horren ondorioz, txakurra gutxiago askatzen dugu eta, horrela, zorizko zir- kulu negatiboan sartzen gara.

Canexionen arazo horiek guztiak konpontzen lagundu

nahi dizugu. Hemen, lagun- garri izango zaizkizulakoan, aholku simple batzuk eskain- tzen dizkizugu:

- Etortzeko agindua eman au- rretik, zure txakurraren arreta bereganatzea funtsezkoa da.
- Ez deitu txakurra, soilik, ez alde egiteko lotu nahi duzu- nean, deia negatibo bihurtzen ariko zara eta.
- Dei iezaiozu behin eta berriz, saritu etortzeagatik eta aske ematen duen denboraz utz iezaiozu gozatzen.
- Zure deiari erantzuten ez ba- dio, eta urruntzen hasten bada, ez joan atzetik deika, baizik eta, egoerak uzten badu, irten azkar kontrako aldera, haren arreta deituz, eta honela zuregana lasterka etortzeko askoz aukera

gehiago izango duzu.

- Uhala eta poltsatxoak ahazten ez dituzun bezala, ez iezaiozu utzi zurekin zerbait interesgarria eramateari, deiari erantzun ona ematen diozun bakoitzean zure txakurra saritzeko.
- Txakurra aske dagoen bi- tartean zu mugitzen bazara, aukera gehiago izango duzu zurekiko arreta-maila jakin bati eusteko, deiaren eragin- kortasuna ere hobetuz.
- Gogoan izan denbora solte ego- teaz gozatzeak ez duela aparteko zerbait izan behar zure txaku- rrentzat, baizik eta egunero ase behar dugun premia bat.

Ezin baduzu edo zailtasu- nak badituzu, gogoratu Cane- xionen laguntzeko gaudela.

Alberto Fernandez



Maskotentzako kalitatezko denda eta aholkularitza

- ✦ Albaitaritza
- ✦ Txakur heziketa
- ✦ Ileapaindegia
- ✦ Denda

Akarregi poligonoa, 10. Hernani

943 04 87 83

Hamaika pasadizo eta anekdota umoretsu, Astigarragako infernu txikia ezagutzeko

Joan den igandean eskaini zuen Euskal Telebistako aurreneko kateak, Astigarragari eskainitako 'Herri Txiki Infernu Handi' saioaren atala. Bederatzi herritar bisitatu zituzten Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleek, herriari eta herritarrei buruz gehiago ezagutzeko, tonu umoretsuan: Mertxe Arrieta, Luis Altuna 'Rambo', Lurdes Irizar, Periko Garmendia eta Juantxo Zuaznabar, Antonio Zubiarrain 'Xapatero, Joseba Alustiza 'Txingu' eta Joxe Mari Ubarretxena, eta Xabier Urdangarin.

«Grabaketaren egunean, bi bider eman nuen masajea hanketan!»

MERTXE ARRIETA

Goizeroko paseotik bueltan harrapatu zuen Mertxe Arrieta, Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak. «Etxera iristen topatu ninduen, eta elkarrekin eman genuen masajetxoa hanketan, pomada eta guzti. Baina nik berez ez dut orduan ematen! Goizetan ematen dut, gosaldutik ondoren... Zertarako eman behar nuen berrito? Egun hartan bi bider eman nuen masajea!», onartu du Arrietak.

Eta gehitu du: «berak bai beharko zuela, *Ramborekin* egotetik zetorren eta, leher eginda!». Kafea eta txanpaina eskaini zizkion gero: «barre pixka bat egin genuen, bai». Kontatu zion, makina bat bidaia egindakoa dela, eta



Mertxe Arrieta eta Zuhaitz Gurrutxaga, hanketan masajetxoa ematen.

Errusia gustatu zaiola gehien, anekdota eta guzti: «parke batean frexkatzeko gelditu, eta militarrek azaldu zitzaizkigun, metralleta eta guzti builaka. Susto ederra hartu genuen! Sandaliak eskutan hartuta egin behar izan ge-

nuen alde», kontatu du.

Igandeko saioaz geroztik, sorpresa ere hartu du kalean: «ibiltzera joaten naizenean, kalean esaten didate oso ondo atera nintzela. Ez nuen uste hainbeste jende ikusiko zuenik programa!».

«Kaja fuertearen klabea ere j... baina egongo den dirua eta e...

JOXE MARI UBARRETXENA ETA JOSEBA ALUSTIZA 'TXINGU'

Ergobian ere egin zuen egonaldia Herri Txiki Infernu Handi, bere bisitan. Eta Joxe Mari Ubarretxena eta Joseba Alustiza *Txinguk* erakutsi zioten auzoa Mikel Pagadiri: «Ergobia ezagutarazi genuen, Astigarraga eta Ergobia bi mundu dira eta. Beraiek ez dute hala ikusten, baina... Izaten dugu pike pixka bat. Guk oso maitea dugu gure auzoa».

Plazan dagoen kaja fuertearen inguruan aritu ziren kontu kontari eta brometan: «garai batean zegoen kaja fuertea txatarrerokak ekarri zuen, eta bertan jarri. Baina erabili ez, ez genuen ezertarako erabili. Gerora saldu egin zuen, eta bila aritu ginen, baina ez genuen aurkitu». Orain dagoe-

na, berriz, Donostiako bitxitegi batean aurkitu zuen Ubarretxena: «klabea ere jakin nahi zuen Pagadik, baina hor egongo den dirua eta ezerrez... Akaso bitxiak ere izango ditu barruan, baina ez dugu sekula ireki, ezta saiatu ere, eta ez dakigu zer dagoen bertan».

Kaja fuertearen barruko bitxiak ez, baina bere etxeko altxorrak bai, erakutsi zituen *Txinguk*, saioan: «museo ederra dauka montatuta, oso polita. Jendeak ez dio garrantziarik ematen, baina sekulakoa da. Txorakeria batekin hasi zen, eta pixkanaka auzokoek gauzak ekarri dizkiogu, denok aportatu dugu zerbait. Eta aspaldiko gauza asko dago, oso politak. Jendeak kolaboratu du, eta berak bertan jarri, oso kurioso», dio Ubarretxena.

Uholdeek paretetan utzitako

«Grazia haundiarekin aritu ziren herritarrak»

XABIER URDANGARIN

Alkatea baino, herriko historialaria zirudien Xabier Urdangarin, saioan. «Nahi zuten herriaren sorrerari buruz hitz egitea, eta erreparatu egin behar izan nuen badaezpada ere! Aurreko asteburuan aritu nintzen ikasten!», dio barrez. Santiomendin elkartu zen Mikel Pagadirekin, hori zelako Astigarraga bere sorreran; eta herrigunera jaitsi ziren gero. Herriaren hazkundea, eta dagoen txakur pilaz aritu ziren orduan: «gure arteko elkarriketan atera zen kontua, umeak eta txakurrak besterik ez daudela; eta hori erabili zuten gero, udaletxean datuak eskatzeko. Egia esan, izugarria da, bi-hiru etxebizi-



Mikel Pagadi eta Xabier Urdangarin, Santiomendin.

tzako, izango da txakur bat».

Onartu du, «urduri» egon zela kameraren aurrean, baina Pagadik erraztu zuela: «artista da lasaitzen». Eta gustatu zitzaion saioa: «grazia haundiarekin aritu ziren herritarrak, eta kiroldegikoa ere oso giro onean egin zen».

«Gustora egon ginen Pagadirekin, baina bera gustorago gurekin!»

PERIKO GARMENDIA ETA JUANTXO ZUAZNABAR

Murgia Jauregian sartu berri-tan harrapatu zituen Mikel Pagadik, Periko Garmendia eta Juantxo Zuaznabar. Baratza eta ilarraren hazitokia daukate bertan: «markesak beti esaten zuen, baratza txiki bat eduki behar zuela bertan». Ilarraren hazitokian, berriz, 17 motatako ilarrak dauzkate, eta bertara egiten dituzte bisita gidatuak gero, Ilar Astea.

«Jauregiko guardarekin, Luisekin, oso harreman ona daukagu, eta elkarri laguntzen diogu. Garaje moduko bat ere uzten digu, gure gauzak gordetzeko. Gosaldutik ere, berarekin egiten dugu. Etxean bezala ibiltzen gara Jauregian», diote.



Juantxo Zuaznabar, Periko Garmendia eta Mikel Pagadi, 'anjelusa' egiten.

Goizetan, Jauregian ez bada, baratze publikoetan edo Larraburun aritzen dira baratzean; baina eguerdirako, beti elkartzen dira Luisekin, *anjelusa* deitzen dutena egiteko: hamaiketako eder bat. «Ederki

zaintzen gara!». Pagadirekin ere egin zuten *anjelusa*: «oso gustora egon ginen berarekin, baina agian bera gustorago gurekin! Gurekin saioa grabatzea inoiz baino errazagoa izan zela esan zigun berak».

ASTIGARRAGA TELEBISTA

Beste behin egin du bisita Urumea bailarara, Herri Txiki Infernu Handi telebista saioak. Goizuetan bitan eta Erefiotzun beste behin egon ondoren, Astigarragara etorri dira oraingoan, Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak. Eta joan den igandean eman zuten, Euskal Telebistaren aurreneko katean, astigartarrekin ezagutu eta bi-

zitakoaren berri. Ikusterik izan ez zuenak, oraindik ere badauka aukera: *eitb.tv* web orrian osorik, edo *eitb.eus* webgunean atalka, protagonista bakoitzaren bideoarekin.

Zehazki, bederatzi izan ziren saioan azaldu ziren herritarrak: Mertxe Arrieta, Antonio Zubiarra *Xapatero*, Lurdes Irizar, Luis Altuna *Rambo*, Periko Garmendia eta Juantxo Zuaznabar, Joseba Alustiza *Txingu* eta Joxe

Mari Zuaznabar, eta Xabier Urdangarin alkatea.

Goiko Iturritik barrena paseotxo egin, eta Foru Plazan ekin zioten saioari, bi aurkezleek. Hortik aurrera, bakoitzak bere bidea egin zuen. Pagadi Urdangarinekin elkartu zen Santiomendin; Garmendia eta Zuaznabarrekin Murgia Jauregian; eta *Txingu* eta Ubarretxenarekin Ergobian. Gurrutxagak, berriz, itxiturak egiten harrapatu zuen

Rambo Santiomendin, Lizardi Loreaken topatu zuen Irizar, eta etxera egin zien bisita Arrietari eta *Xapaterori*.

Guztien artean, ezagutzera eman zituzten herriko hainbat auzo eta txoko, hainbat pasarte umoretsu, eta herriaren historia ere bai.

Ekitaldi nagusia, berriz, kiroldegiko pistan grabatu zuten, makina bat herritar bertan zirela. Giro ederra izan zen bertan,

eta Sebastian Lizaso bertsolariak eman zion hasiera saioari, bertso batekin:

Kaixo ta gabon Astigarraga gaurko saioan zutabe herri aparta betidanikan altxor ugariren jabe jakinminez zaudena entzun proposamena aukera ederrean zaude Astigarraga ezagutzeko eskuan basorik gabe. K

«Ez zidan esan Pagadik, ezkerrez... Ez da sekula ireki»



Joxe Mari Ubarretxena, Mikel Pagadi eta 'Txingu', sagardoarekin topa egiten.

markak estaltzeko hasi zen *Txingu* koadroak jartzen, eta azkeneko denetik jarri du bertan: argazki zaharrak, pinturak, garai bateko gauzak, lanabesak...

Horiek denak bakarrik ez, etxean daukan ikasgela ere

erakutsi zion Pagadiri, eta baita gimnasioa ere.

Eta guztiak erakutsita eta kontatuta, plazan egin zuten topa, iturri berezitik sagardoa hartuta. Dena baitziren sagardotegiak plaza horren bueltan, garai batean.

«Ez zidan esan Pagadirentzat zirela loreak; nahikoa barre egin genuen!»

LURDES IRIZAR

Lizardi Loreak ere bisitatu zuen Zuhaitz Gurrutxagak, Astigarragan. Tinbrea jo beharrean oihuka deitu ondoren, Lurdes Irizarrek egin zion arreta, eta loreei buruzko kontuak azaldu zizkion; esaterako modu batera edo bestera prestatzen direla lore-sortak, zertarako diren arabera. Baina hildakoentzako koroaren oinarria, *salvavidas* batekin konfunditu zuen aurkezleak...

Eta eskaera bat egiteko ere aprobetxatu zuen Gurrutxagak, orduan: «bikoteari ezkontzeko eskatzeko, lore-sorta bat prestatu genuen, baina ez zidan esan Pagadirentzat zirenik... Gero ikusi genuenean, nahikoa barre egin genuen! Begira nola



Lore-sorta ederra prestatu zion Lurdes Irizarrek, Zuhaitz Gurrutxagari.

bukatu zuten han, ezkontza entsaiatzen!», kontatu du.

Izan ere, lore-sorta hark emaitza eman zuen, eta ezkontzekotan geratu ziren Gurrutxaga eta Pagadi: «ederki osatu zuten ospakizuna; bateko ilarak, besteko bertsoak,

loreak, itxiturak... Oso talde polita osatu zuten».

Irizarrek onartu du, ez zekiela zer moduzkoa aterako zen grabaketa, baina «oso gustora» egon zela gero. «Beraiek ere halakoak dira, oso naturalak, eta erraztu egiten dute».

«Bonba hura bakarrik ez, granadak ere topatu ditut, perretxikotan!»

LUIS ALTUNA 'RAMBO'

Harrituta utzi zuen Luis Altuna *Rambok*, Zuhaitz Gurrutxaga, 1936ko gerrako bonba bat Santiomendin aurkitu zutela kontatu zionean: «orain dela 50 bat urte izango zen hori. Sua egin genuen hiru anaiek, eta sardearekin ari ginela, burni puska bat topatu genuen. Guk ezta imajinatu ere, bonba bat zenik, eta sutara bota zuen anaia zaharrenak. Sekulako sua hasi zen, eta korrika ezkutatatu ginen pareta baten atzean, polbora guztia erre zen arte. Orduan pasa zitzaigun sustoa!».

Beste bonbarik ez, baina granadak topatu ditu *Rambok* Santiomendin: «perretxikotan nenbila topatu nituen, granada pila bat, basurderen batek



Luis Altuna 'Rambo' eta Zuhaitz Gurrutxaga, itxitura bat prestatzen.

lurpetik ateratakoak. Ertzainak etorri denak biltzera, eta gerora esan zidaten denak lehertu zirela, ondo zeudela oraindik. Eta ni makilarekin zirikatzen aritu nintzen!».

Buruko zinta pila bat era-

biltzen dituela eta, izan zuten elkarriketa umoretsua: «ba zinta pila bat galdu ditut, edozein tokitan zintzilik utzita! Lehen kajoia ezin itxi baldin baneukan, orain erdia ere ez zaizkit geratzen!», onartu du.

«Oso gustora egon nintzen grabaketan»

ANTONIO ZUBIARRAIN 'XAPATERO'

Foru Plazara igotzeko aldapan egin zuen topo Zuhaitz Gurrutxagak, Antonio Zubiarra *Xapaterorekin*. Zer moduz zegoen galdetuta, erantzun xelebrea eman zion aurkezleari: «hanka bat kanposantuan, eta bestea anbulatorioan. Horrek esan nahi du hanka luzeak dauzkadala!».

93 urterekin ere, etxera eskaileretatik ederki igotzen dela erakutsi zion, eta bertsoan ere animatu zen: «bertso bat botatzeko eskatzen badiate, botatzen dut, gustatzen zait; baina gainerakoan ez naiz aritzen. Nire aitona eta nire anai zaharrena bai, bertsolariak ziren».

Saioaren grabaketan, «oso



'Xapatero', Zuhaitz Gurrutxagarekin.

gustora» egon zela onartu du *Xapaterok*, baina kameraren aurrean pixka bat lotsatuta ere bai: «batzuetan gertatzen zaizu, gauza bat esan nahi, ahaztu, eta beste bat esaten duzula!», aitortu du.

Fitness eta ziklo gelak zabalduko dira etzi

Hitzorduarekin ordutegi berria izango du, astelehenetik ostiralera 07:00etatik 22:30era, larunbat eta igandeetan 09:00etatik 20:30etara.

ASTIGARRAGA KIROLDEGIA

Astigarragako kiroldegiak astelehenean irekiko ditu berri-ateak ia hiru hilabete itxita egon eta gero. Aste osoan lanean aritu dira dena bere lekuan edukitzeko eta segurtasun neurri guztiak betetzeko.

Astigarragako kiroldegian ere gimnasioa izango da lehenengo zabaltzen ateak. Horretarako hitzordua eskatu behar da eta astigarragako mugikorretarako edo ordenagailurako aplikazio bat erabili beharko dute horretarako eta hitzordurik gabe ezingo da kiroldegira joan.

Aplikazio baten bitartez eskatu behar da hitzordua

Telefonozko arreta mantenduko da, baina aplikazioa denek erabiltzea nahi da. Emango den informazioa, lehendabiziko egunetan arretako langileak eman dezake kudeaketaren inguan, baina nahi dena da norberak aplikazio hori erabiltzea. Hala ere, adinekoen kasuan edukiko da beste kontsiderazio bat. Aplikazioa dagoeneko astigarragaren eskura dago Udaleko webgunean. Erabilerraza da eta denentzako ulergarria.

Gimnasioa bi eremutan banatu dute. Bi metroko distantzia eta segurtasun neurriak hartu behar direnez makina batetik bestera, spinning-eko gela ere egokitu da.

Bi gela kudeatuko dira beraz. Batean lan orokorra landuko da eta bestean lan zehatzagoa edo espezifikagoa, bizikletak egongo direna.

Ordutegi berriarekin hasi-

ko dira astelehenean goizeko 07:00etatik gaueko 10:30etara, nahiz eta zerbitzua 10:00etan etengo den.

Igerilekua irekitzeko data zehatzik ez dago, baina uztaileko espero da

Igerilekua irekitzeko data zehatzik ez dago, baina ez da uztailearen aurretik zabalduko. Lanean ari dira uztailean irekitzeko kiroldegiko arduradunak. Uztaile esatean, izan daiteke ekainaren 29an edo uztailearen lehenengo astean. Hori bai, horretarako baimen guztiak eta baldintza danak bete beharko dira.

Aldagelak eta takillak itxita egongo dira eta komunak kasuan gomentatzen da ez irekitzea, baina Astigarragako kiroldegian erabiltzeko aukera egongo da beharrezkoa den kasuentzat.

Bi toaila eraman behar dira derrigorrez

Gimnasioa ordu beteko txandatan erabiliko da eta nahiko arautegi berezia ezarri da. Aipagarria da entrenamendu saioa erreserbatzearekin batera, ordutegia errespetatu behar dela. Ekaina osoan zehar eskatzen diren neurri hauek betearazteko pertsona bat egongo da gimnasioan zerbitzua eskaintzen den ordutegian.

Komeni da bakoitza txanda horretan protokolo arauak betetzea eta horretarako azalpenak emango dira. Alfonbra bat jarriko da eta bertatik pasa behar da distantziak mantenduz, zapatilak lehertuz eta abar. Gero barrura sartuta gelak egongo dira eskuak garbitzeko eta be-

giralea zain egongo da azalpenak emateko nola funtzionatu behar den.

Makina bat erabili ondoren eskura izango ditu erabiltzaileak desinfektatzeko produktuak. Norberak egin behar du desinfekzioa. Zapatilan zolak ere desinfektatu egin behar dira eta kiroldegira sartzeko derrigorrezkoa dena bi toaila eramatea da. Toaila haundia makina babesteko erabiliko da eta bestea izerdia lehertzeko. Maskarilarekin sartu behar da, baina gimnasiora behin sartuta ariketa egiteko kendu daiteke. Ezinbestekoarekin joan behar da gimnasiora, bertan ez baitira aldagelak irekiko. **K**



Udaran ikastaroak ere eskainiko dira.

Udako ikastaroak uztaile, abuztua eta irailan zehar luzatuko dira

Aurreizenemateak astelehenean egin behar dira ekainaren 12ra arte eta hilabete bakoitza independentea izango da, ez dira trimestralak.

ASTIGARRAGA UDAKO IKASTAROAK

Udako kanpaina ere martxan jarriko da eta astelehenetik aurrera aurreizenemateak hasiko dira. Helduentzako eta haurrentzako kirol eskaintza izango da eta aurtengo berezitasuna da hiru hilabetera luzatutzea: uztaile, abuztua eta iraila.

Aurreko urteetan uztailean bakarrik eskaintzen zen eta aurten ikastaroak luzatuko dira. Hilabete bakoitza independentea izango da, ez da ikastaro trimestrala izango.

Ekainaren bigarren hamabostaldian aurrez aurreko doako saioak eskainiko dira. Aforoa kontrolatu ahal izateko izena ematea beharrezkoa izango da. Izen-ematea jarduera hasi aurreko egunean egin beharko da, 943 333 676 telefonon edo kiroldegia@astigarraga.eus helbidera idatziz.

Ordainketa eta azken izenemateak ekainaren 16 eta 18 bitartean

Aurreizenematea ekainaren 12ra arte egingo da eta zozketa ekainaren 15ean, 14:00etan egingo da. Ordainketak eta ize-

nematea ekainaren 16tik 18ra egingo dira.

Helduentzako, haur eta gazteentzako ikastaroak dira. Haur eta gazteentzako ondorengo ikastaroak antolatu dira: Jump fit kids 5 eta 15 urte bitartekoentzat ordutegi eta egun desberdinetan, zumba kids 4-15 urtekoentzat, aireko gimnasia 8-15 urte bitartekoentzat, ziklo indoor 12-15 urte artekoentzat, bungee air fit 8 eta 15 urte artekoentzat. Gero jolas txiki ere egingo da 3-5 urtekoentzat eta multikirola.

Helduentzako ikastaroak ondorengoak dira: Aireko pilatesa, pilatesa, gimnasia 65 urte gorakoentzat, hipopresiboak hastapena, hipopresiboak mantentzea, zumba, strong by zumba, aerofit, body weight (ikastaro hau berria da), jump fit!, ziklo indoor, trx, bungee airfit. Ikastaro hauetako batzuk ez dira abuztuan eskainiko eta emango diren ikastaroen txandak murriztu egingo dira abuztuan zehar.

Ikastaroen prezioak desberdinak dira eta bazkideentzako merkeagoak dira prezioak.

Ikastaroetan ere segurtasun neurri bereziak hartuko

dira koronabirusaren ondorioz.

Igerilekuko ordutegia eta aztertzen ari diren neurriak

Igeriketako ikastarorik ez da egongo afora kontuak direla eta. Nahiko komeri izango dira igerilekuko hondartzaren egokitapena egiteko partzelak. Belardia nola banatu ari dira aztertzen, hesitu egingo da eta hori ere erreserba bidez eramango da.

Aurreikusten da hiru orduko hiru txanda eskaintzea. Aurreneko txanda goizeko hamarretan hasiko da eguerdiko 13:00etara, gero orduerdiko desinfekzio lana egingo da eta bigarren txanda 13:30etatik 16:30etara izango da. 17:00ak arte bigarren desinfekzio lanak egingo dira eta azken txanda 17:00etatik 20:00etara izango da.

Aztertzen ari dira nola banatu eremua. Printzipoz 2x2 metroko eremuak banatuko dira erabiltzaile indibidualentzat eta taldeentzat edo familiarrentzat 4x4ko partzelak izan daitezke, baina kiroldegitik argitzen dute oraindik ere lanetan direla eta aldatu daitezkeela.

JARRAIBIDEAK

- Covid-19arekin lotuta egon daitekeen sintomaren bat izanik, ez joan kiroldegira.

- Entrenamendu-saiorako hitzordua hartu beharko da aplikazio baten bidez, eta errespetatu txanda bakoitzeko denbora.

- Aldagelak eta armarioak itxita egongo direnez, kirola egiteko arropa jantzita eraman beharko da.

- Ezinbestekoa den materiala soilik eraman beharko da (ur botila, bi eskuoihal eta telefono mugikorra).

- Instalazioan sartzekoan sarreran egongo den alfonbrearekin oinetakoak desinfektatu beharko dira eta eskuak gel hidralkolikoa erabiltzeko garbitu.

- Instalazioan maskarilla eramatea derrigorrezkoa izango da; ez ordea, jarduera fisikoa egitekoan.

- Uneoro beste pertsonetako 2 metroko distantzia mantendu beharko da.

- Materiala erabili ondoren eskura egongo den produktu desinfektatzailearekin garbitu beharko da.

Kirol instalakuntzak pixkana eta baldintza zorrotzekin irekiko dira astelehenetik

Gimnasioa izango da zabalduko den lehenengoa, aforo mugatua, %30ekoa, eta aurretik antolatutako txandak eginda. Igerileku estaliak izango dira hurrengoak ekainaren 15ean eta, azkenak, kanpoko igerilekuak, uztailaren 1ean.

HERNANI KIROLDEGIA

Datorren astelehenetik aurrera modu progresiboan irekiko dira kirola eta jarduera fisikoa egiteko udal instalazioak eta zerbitzuak. Gimnasioa izango da zabalduko den lehenengoa, aforo mugatua eta aurretik antolatutako txandak eginda. Igerileku estaliak izango dira hurrengoak eta, azkenak, kanpoko igerilekuak. Astelehenean, ekaina 8an, gimnasioa zabalduko da aforoaren %30arekin. Ordu bete eta erdiko txandak antolatuko dira.

Igerileku estaliak eta aire zabaleko ikastaroak ekainaren 15ean zabaldu eta hasiko dira martxan eta uztailaren 1ean jolas igerilekuak eta kiroldegiko barruko ikastaroak.

Hitzordua hartu behar da 943 55 21 85 telefono zenbakian edota 'kirola.hernani.eus' webgunean

Gimnasioa erabili nahi duenak aurretik hitzordua hartu behar du. Telefonoz 943 55 21 85 edo *kirola.hernani.eus* webgunearen bidez har daiteke.

Hitzordua hartzeko ordutegia 07:00etatik 22:00etara izango da eta aurreko egunetik hartu daiteke. Bertan behera uzteko 2 ordu lehenago egin behar da, bestela ez erabiltzat emango da hitzordua eta erabili ezean, hurrengo 72 ordutan ezingo da beste hitzordurik hartu zerbitzu horretan.

Aldagelak itxita hasieran eta bi toaila eraman beharko dira

Aldagelak eta takilak itxita egongo dira. Pertxeroak erabili ahaliko dira (bakoitzean erabiltzailearen izena jarriko da). Kiroldegira sartzeko norberak bi toaila eraman beharko ditu baita maskarilla ere (kirola egiteko soilik kendu daiteke). Makina bakoitza erabili ondoren, erabiltzaileak berak garbitu beharko du spray batekin.

Barruko igerilekuak zabal-tzen direnean irekiko dira aldagelak eta dutxan puntuak markatuta egongo dira distantzia mantentzeko helburuarekin.

Kiroldegia erabiltzeko baldintzak

Aurrez-aurreko atentziorik ez da emango kiroldegian (beharrezkoak diren kasuetan hartutako



Hernaniko kiroldegia ere astelehenean irekiko ditu ateak.

hitzorduetan salbu). Kafegunea itxita egongo da, eta makinak ez dira erabilgarri egongo (zerbitzuz kanpo). Txanda bakoitzak ilara egingo du (distantzia errespetatuz) kiroldegia kanpoaldean. Puntuak markatuko dira eta gidak jarri ere. Harrerako langileek sarreraren kontrola egingo dute, izen-emate zerrendarekin kontrastatuz. Lehen fasean aldagelak guztiz itxita egongo dira. Igerilekuak irekitzean aldagelak irekiko dira, dutxa puntuak mugatuta izango dira, distantziak mantentzeko helburuarekin. Instalakuntzan puntu desberdinetan (gauzak ikutzeko aukera/arriskua dagoen puntu orotan) gel desinfektatzaile aparatuak jarriko dira.

Aforoa %30ekoa izango da eta distantziak mantenduko dira

Gimnasioaren zerbitzu irekiera neurritzeko eta segurtasun neurriak bermatu ahal izateko aforoa murriztuko da (%30). Makinen arteko 2 metroko distantzia bermatu eta txandak antolatu dira. Txanda bakoitzeko aforoa 42 pertsonentzako mugatuta da eta txanda bakoitzeko denbora tartea ordu bete eta 30 minutukoa izango da. Horietatik 15 minutu sartzeko, ordu beteko jarduera egingo da eta 15 minutu garbitzeko eta irtetzeko.

Txanda batzuk, 65 urtetik gorakoak; haurdunak; osasun

arrisku berezikoentzat gordeta egongo dira, 10:00etatik 11:30etara. Eta 11:30etatik 12:30etara instalazioa garbitzeko ordua erabiliko dute garbitzaileek. 15:30etatik 16:30etara bigarren garbiketa egingo da.

Sarreraren temperatura hartuko da eta hiru aldiz desinfektatuko da gimnasioa

Insatrazioa sartu bezain pronto temperatura hartuko zaie erabiltzaileei eta eskuak gelarekin garbitu beharko dira. Txanda hartuta dutela konprobatu ondoren sarreratik zirkuito zirkular bat egin da. Irtetzen diren erabiltzaileak eta sartzen diren erabiltzaileak pasiloan topo ez egiteko.

Kirola egiten den espazioa hiru aldiz desinfektatuko da. Horrez gain, bi makina bakoitzeko spray desinfektatzaile bat egongo da. Spray desinfektatzaile hauek erabiltzaile bakoitzak erabiliko ditu, (emango zaizkien trapeak eta norbere toailak erabiltzaileak), makina bakoitza erabili eta gero egin beharreko prozedura da.

Makina desinfektatu ondoren eskuak ere gelarekin garbituko ditu. Ordua bukatzeko 15 minutu falta direnean kirolariak makinak utzi, desinfektatu eta gauzak jaso beharko ditu. Hau guztia betetzen dela ziurtatzeko begirale bat gongo da. **K**



Udaran sagardoaz gozatzeko, zatoz Olaizola sagardotegira

OLAIZOLA SAGARDOTEGIA
PUBLIERREPORTAJEA

Sagardotegi denboraldiaz gozatzeko gogoz geratu zenak, izango du aukera oraindik, Olaizola sagardotegian. Datorren ostiralean, ekainaren 12an, irekiko ditu ateak berriro, udaran sagardoaz gozatzeko beste modu bat eskainiz. Eta horrela, txotx denboraldiaz gozatzeko aukera ere izango da berriro.

Izan ere, botilatik ez ezik, txotxetik ere dastatu ahal izango da sagardoa, txandaka eta taldeka.

Ostegunetik igandera egongo da zabalik Olaizola, eta sagardotegiko menuaz gainera, beste menu batzuk ere dastatzeko aukera izango da. Ostegun eta ostiral iluntzeetan, larunbat eguerdian zein gauean, eta igande eguerdian gozatu ahal izango da sagardotegiko giroaz, aurrez erreserba eginda.

Horretarako, egungo egoera kontutan hartuta, beharrezko neurriak hartuko dituzte. Eta terrazatxo bat ere prestatu dute, bezeroek ahalik eta modurik onenean eta seguruenean gozatu dezaten.

Letra zopa Lanpostuak

ZLIGZTNTHSZLWQ

BASOZAINL OACGS

L OREZAINYVPHIU

OWCHUSZTGNAWYK

GAE THAOXLKTMHA

E EGR OAEQINATKL

MJZG IARHG YRF RD

QMZ IJZRGO L IMLA

EXMMDEAOIRFICR

NZZEDAI I TNZWAI

E BTINPZMNZO L IM

NTMP L MWLZXOSEZ

JVSERR EMENTARI

AIGELTSE ROTPHR

- AROTZ

• BASOZAIN

• EHORZLE
- ERIZAIN

• ERREMENTARI

• HARGIN
- IDAZLE

• IGELTSERO

• LOREZAIN
- SUKALDARI

• ZAPATARI

Ezberdintasunak



EGURALDIA

GAUR

asdfsdf
Min.13° / Max.21°

BIHAR

asdfsdf
Min.16° / Max.25°

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) UDALIZAINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) DYA 943 464622 AUTOBUSAK Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Castilla Urbietta, 7 (Hernani) 943 552941 Gaez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738

Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Ariketa matematikoa

x

-

=

3

+

x

+

=

4

-

/

-

=

9

=

=

=

7

2

4

Mezu sekretua

-----, -----
UKGUSTO NKIATO, DLAPIRAKA ZE

SOLUZIOA
gustuko tokian, aldaparik ez

IRAGARKI MERKEAK

Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Online nahiz presentzialak. Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua)
Soziosanitario euskalduna pertsonak zaintzeko prest, ziurtagiri eta kobxarekin.
Deitu: 678 992 110
Etxebizitza bat alokagai. Bi gela ditu eta dena kanpokaldera. Deitu: 619 81 33 57
Emakumea lan bila: etxeko lanak egiteko, aitona-amonak zaindu, goizez eta arratsaldez.
Deitu 602 04 98 91
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Hau bezalako argazki ikusgarriak egin ditu Legarretak, orain arteko saioetan. Argazkia: Nagore Legarreta

«Esperientzia kolektibo gisa, sekulakoa ari da izaten»

Aste honetan ekin die berriro Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak, Emakumeon Plazako murla osatzeko argazki saioei, kultur etxean.

ASTIGARRAGA EMAKUMEON PLAZA

Martxoan hasi zituzten argazki saioak, Nagore Legarretaren eskutik, Astigarragako Emakumeon Plazako murla osatzeko. Saio gutxi batzuk besterik ezin izan zituzten egin, ordea, alarma egoerak eten aurretik.

Aste honetan ekin diete berriro argazki saioei, 10 lagunek taldeetan eta segurtasun neurriak betez, kultur etxean. Eta orain artekoarekin oso pozik dago argazkilari hernaniarra: «muralaren emaitza polita izatea espero dugu, baina esperientzia kolektibo bezala, sekulakoa ari da izaten, herriko emakumei arreta jartzea. Beraien gorputzari eta jarrerari hitz egiten uzten zaienean, primeran ari dira erantzuten. Subidoi batekin ateratzen gara saioetatik!», adierazi du Legarretak.

Guztira, 120 emakume inguru pasako dira bere kameraren aurretik: «hasieran, martxoan egin behar genuenean, jende gehiago zegoen. Baina etenal-diaren ondoren, berriro jarri gara kontaktuan beraiekin, eta 120rekin geratu gara. Orandik badaukate aukera, berriro engantxatzeko saioetara», dio.

Adin guztietako emakumeak, astigartar peto-petoak zein herrira etorri berriak

Animatu diren emakumeen aniztasuna ere goraipatu nahi izan du Legarretak: «adin guztietakoak animatu dira, haur

eta nerabeetatik hasi, eta hel du zein adinekoetara. Eta era berean, badauzkagu astigartar peto-petoak, zein herrira etorri berriak direnak. Oso polita da».

Bildutako argazki guztiekin, mural haundia osatu beharko du argazkilariak, gero: «33 metro da luze, kurbatua den arren; eta bi metro inguruko altuera izango du. Nahiko lan izango dugu gero, argazki hauek denak bilduta, aukeraketa egin eta murla prestatzeko. Konposaketa bat egingo dut argazkiekin, eta kolore lanketa bat prestatuko dut, marrazki itxura emateko, ez izateko irudi artifizial bat», aurreratu du.



Mota guztietako arroparekin erretratatu nahi ditu Legarretak, emakumeak.

Zortzi saio izan ziren bertan behera geratu zirenak, birusaren ondorioz; baina 11 saiotan egingo dituzte orain, talde txikiagoetan elkartu eta segurtasuna bermatzeko. Joan den astelehenean egin zuten aurrenekoa, Harituz elkarteko kideekin; eta argazki ikusgarriak lortu zituen Legarretak, testuaren gainean ageri dena bezalakoak.

Ekainean zehar egingo dituzte saio guztiak, goizez edo arratsalde, 10:00etatik 12:30etara edo 17:30etatik 19:30etara.

Horieta, maskarilla eraman beharko dute partehartzaileek, segurtasunerako; eta argazkietarako, mota guztietarako arropak: kolore argikoak, koloretsuak, bolantedunak, zapiak, udakoak, kirol ezberdinetakoak, norberarentzat garrantzitsua den objektuen bat... **K**



Kultur etxeko aretoan ari dira egiten argazki saioak, joan den astelehenean.



Aurrematrikula irekita ekainaren 1etik 19ra

URUMEA PUBLIERREPORTAJEA

Martutene Lanbide Eskolak bi espezializazio mota eskaintzen dizkie, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasi nahi duten gazteei:

- **Elektrizitatea-Elektronika**
- **Informatika-Komunikazioak**

Zer da Martutene Lanbide Eskola?

Martuteneko 27 poligonoan kokatutako Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea gara. Gure ikasleei lan munduan sartzeko edo bere ikasketekin jarraitzeko oinarrizko formakuntza ematen diegu. Zentro txiki bat gara, ikasleei banakako arreta eskaintzen diegu, eta familiekin oso harreman estua dugu.

Zer esan nahi du OLHK?

Oinarrizko Lanbide Heziketa. DBHko helburuak lortu ez dituzten gazteei zuzenduta dagoen hezkuntza-programa bat da. Programa honetan 15 eta 17 urte bitarteko gazteak sar

daitezke. Gazteentzako ibilbide alternatiboa da. Ikasleak eta familiak OLHN hastea ez dute bizi behar porrota bezala, beraien helburuak lortzeko aukera berri gisa baizik.

Zein espezialitate eskaintzen dituzue?

Elektrizitatea-Elektronika eta Informatika-Komunikazioak. Bietan enpresetako praktikak egiten dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, gure web orrian kontsulta daiteke.

Zer lortu daiteke formakuntza honekin?

Alde batetik, Oinarrizko Lanbide titulua lortuko dute, eta bestetik, Kualifikazio Profesionaleko Katalogo Nazionaleko Lehen Mailako Profesionaltasun Ziurtagiria. DBHko titulua ere lortu dezakete.

Zein irtenbide ditu OLHK?

Ikasleak, bukatu ondoren, lan munduan sartzeko prest daude, baina ikasketekin jarraitu nahi badu, Erdi Mailako edo zein ziklotan sar daiteke.



MARTUTENE LANBIDE ESKOLA

Ubarburu Pasealekua, 30. 27 poligonoa. Martutene

Tel: 943 46 01 45 – 610 787 001

www.fpmartutene.org

Egoerak uzten badu, udazkeneko hilabeteetan izango dira festak Osiñagako auzoan

Asteburu honetan ziren ospatzekoak Osiñagako jaiak, baina alarma egoera dela eta bertan behera geratu dira lehenengoz, 1992. urtetik. Festen formatua aldatu behar baldin badute ere, udazkenean ekitaldiak egitea espero dute.

HERNANI OSIÑAGAKO JAIAK

Bailarako gainontzeko herri eta auzoen moduan, aurten ez da joan den urteen tankerako ospakizunik izango Osiñagan. Hala ere, ez dute ahaztu nahi festak direla eta aurrerago bada ere, uda amaitzean beharbada, egitasmoren bat edo beste antolatzeke asmoa dutela ziurtatu dute. «Leku guztietan bezala ez daude baldintzak jaiak antolatzeko, baina agian udazkenean egingo dugu zerbait, egoerak uzten badigu».

Herriko zenbait auzotako biztanleek kaleak apaindu eta modu sinbolikoan jaiak ospatzea erabaki dute. Osiñagako enka-sua, ordea, ezberdina da: «auzoa apaintzea zaila da, baserri eta etxeak oso sakabanatuta daude eta ez dago gunen zentralik».

Osiñagakoek gogotsu antolatatu dituzte festak orain arte eta aurtengoa 29. jaialdia izango zen. Urte guzti horietan euri jasek utzitako uholdeak edota bestelako oztopoak izan dituzte, baina aurtengoak ez die alternatibarik utzi eta guztia atzeratzea erabaki dute. «Distantziak mantendu behar dira ekitaldiak egiteko» eta horregatik, ezinezkoa izan da asteburu honetarako beste edozein aukeratan pentsatzea.

Hasiera batean pentsatuta zegoen egitarauko marrazkiarekin batera, bertso agurra ere egin zuen Jon Altuna Iza Oxanek Osiñagako festetarako:

*Hauxe da Osiñagako
jaien esentzia
festa gogoaz bete
edalontzia
umore ona ekarri
lasai kontzientzia
poz txikiari eman
duen garrantzia
Independentzia
ahaztu distantzia
meneo dultzia
dantza eta igurtzia
non bizi horrelako
esperientzia*

Udalarekin eta herriko beste auzoekin, bilerak

Airean dago guztia oraindik eta inork ez daki ziurtasunez festak bere horretan ospatzerik egongo den, udazkenean ere. Hala ere, Osiñagakoek asmoa dute zerbait antolatzeke: «Ekitaldiren bat edo beste egingo dugu, egoeraren arabera uda ostean, iraila edo urria», baina beste agerraldi bat egoteko arriskua egon daitekeela pentsatzen dute eta horregatik diote ezin dela «ezer aurreikusi oraindik».



Alarma egoera dela eta, 29 urtetan lehenengo aldiz bertan behera geratu dira Osiñagako jaiak.



Ekitaldirik ez da izango ekainan, baina iraila aldera festak ospatzea espero dute auzokoek.

Bitartean, udaletxeko arduradunekin eta gainontzeko auzotako jai batzordeetako kideekin bilerak egin dituzte, egoera zein izan daitekeen pentsatzeko. Hain zuzen ere, osasun sailak dioenaren arabera erantzuna izango dute auzokoek ere, festak antolatzeke: «Inork ez dakigu zer egin dezakegun», diote. Alarma egoeraren menpe dago guztia eta ezjakintasuna da protago-

nista nagusia jaien antolakuntzan, printzipioz ezin baita ezer finkorik lotu. «Diru laguntzak jasotzeko deialdia aurten ez da egin», nabarmendu dute adibide nagusi moduan.

«Ekintza kulturak ere, egoerak uzten digunaren arabera egingo dira»

Jarduera ugari antolatu dituzte auzokoek lurralde osoan zehar.

Joan den urtean Leireko Monasterioa edota Txillida Leku bisitatu zituzten, baina aurten guztia kolokan dagoela azpimarratu dute: «ziurrenik antolatuko dugu, baina oraingoz ezin da beste lurralde batera pasa eta guztia mugatua dago. Baldintzak zabaldu arte ezin dugu gehiegi aurreratu».

Azaldu dute ibilaldi edo txangoak egiteko autobusak direla be-

harrezkoak eta zaila dela horrela-ko ekintza kulturekin distantzia soziala eta arauak mantentzea.

Maiatzean jakinarazi zuen Osiñagako Auzo Elkarteak ez zela ohi bezala ekainean jairik egingo eta herritar eta afektatuei elkartasuna adierazi nahi izan die. Festak ospatzeko gogotsu daudela argi utzi dute eta ahal bezain pronto egingo dituztela ziurtatu dute, auzotarrek. **K**

«Udarako, jendea ari da bilatzen gertuko tokiak; pixka bat isolatuta dauden herri txikiak»

Arduradun berria dauka Zubimuxu aterpetxeak, martxotik; baina ezin izan ditu ateak ireki, orain gutxi arte. Zalantzaz betetako hasiera izan ondoren, ordea, baikorra da Regina Brücker, datozen hilabetei begira: udarako erreserba ugari ari da jasotzen, dagoeneko.

GOIZUETA ZUBIMUXU ATERPETXEA

Ez du hasiera erraza izan Regina Brückerrek, Zubimuxu aterpetxean. Osasun alarma egoera ezarri zen egunean bertan sinatu zuen aterpetxea hartzeko kontratua, eta ireki ezinik egon da bi hilabete pasatxo. Baina dagoeneko hasi da bisitariak hartzen bertan, eta baita udarako erreserbak jasotzen ere. Baikorra da, datozen hilabetei begira, eta pixkanaka jarri nahi du martxan bere proiektua: Zubimuxu, aterpetxe bat baino gehiago izatea nahi du.

Nolakoak izan dira azkeneko hilabeteak, aterpetxea ireki ezinik?

Ireki ezinik egon gara orain arte, eta aterpetxea prestatzen aritu gara. Alarma egoera ezarri zen egunean bertan hartu nuen aterpetxea; egun horretan sinatu nuen kontratua. Behintzat, denbora eman dit pentsatzeko eta proiektua zehazteko, aterpetxea barrutik margotzeko, jardina prestatzeko, garbiketate egiteko...

Zaila izango da, aterpetxea hartu berrian, ireki ezinik aurkitzea...

Bai bai, izan zen momentu bat, ez nekiela zer egin. Ez zen garbi ikusten, udaran irekitzerik izanen genuen ala ez. Eta zalantza neukan, martxan jarri edo oraingoz ez ekin. Baina gero, ikusi nuenean baietz, posible izanen zela, gogoz hasi nintzen lanean. Eta azkeneko bi asteotan, Nafarroako jendeak etorri ahal izan du, eta bat edo beste etorri da, bikoteren bat asteburuetan eta. Udarako badauzkagu erreserba dexente, dagoeneko.

Hasi da mugitzen pixka bat, beraz?

Badago mugimendua, bai. Erreserbak egin dizkigute, behintzat. Gero, ea etortzen diren... Tokia badago oraindik, hala ere. Baina udarako hilabeteotarako eskaera dexente jaso ditugu, lehenago etorri den jendea zein aurrenekoz etorriko dena. Bai-

korra naiz, jendea bilatzen ari delako gertu daukan zerbait, pixka bat isolatuta eta herri txikietan, jende askorik gabe. Hemen ez dugu Koronabirus kasurik izan, eta makina bat txoko daude, tarteak mantentzeko, eta bakoitza bere kasa aritzeko.

Nolako neurriak hartu beharko dituzue?

Gehiago desinfektatu beharko dugu, noski; bereziki zona komunak: pasilloa, sukaldea... Eta logela garbitzerakoan ere, arreta gehiago jarriko dugu desinfekzioan, heldulekuak eta elementu guztiak garbituz. Eta zona komunak erabiltzeko, txandak antolatu beharko ditugu, egongelaren edota sukaldearen erabilera erregulatu. Orain arte ez zait tokatu bikote edo talde bat baino gehiago izatea, baina aurrerantzean bai. Beraz, txandak erabili beharko dituzte gune horiek, eta tartean desinfektatu egingen ditugu.

Zenbat jenderentzako tokia dauka Zubimuxuk?

30 plaza dauzka, bost gelatan. Bi logela dira bi lagunentzat, komuna konpartituta. Eta beste hiru gela daude haundiagoak, 10eko bi eta seiko bat, literekin. Horiek, komuna eta dutxa daukate logelaren barruan. Eta gela guztietakoek erabili ditzakete sukaldea eta gainerako zona komunak. Hartu daiteke gela oso bat, litera bat, edo aterpetxe osoa. Dena den, une honetan aforoaren %50a erabili dezakegu, gehienez.

Zer dela eta hartu zenuen aterpetxea?

Denboran oso atzera egingen dut, azaltzeko. Nik ikasi nituen Geografia eta Basoko Ingeniari-tza. Eta beti gustatu izan zait, geografiaren barruan, landa eremuen garapena, eta herri txikien kultura eta egitura mantentzea; baina era berean, zonalde horien ekonomia indartzea. Azkenean, maitasunaren bideak Goizuetara ekarri ninduen. Suitzan irakaslea nintzen ni, institutu batean ordezkape-



Regina Brücker, Zubimuxu aterpetxeko sarreran.

nak egiten. Goizuetan bizi zen hernaniar bat ezagutu nuen Zeelanda Berrian, munduaren beste puntan. Eta zenbait urtetan, egon ginen Suitzatik hona eta hemendik Suitzara mugitzen. Baina nonbait finkatzeko ordua iritsi zen, gure bizitza estiloa berreskuratzeko eta oiloak, katua... izateko. Eta Goizuetan ezarri ginen. Euskera oraindik guztiz ez menperatzeak, mugatu egiten nau nire lanbideetan aritzeko, irakasle edota geografo bezala. Eta hasteko, aterpetxea hartu dut, aprobetxatu dezakedalako hizkuntza ezberdinen ezagutza; euskera ere hobetzen ari naiz. Gainera, turismoa dinamizatzeko beharra dago herrian, eta probatzea erabaki dut. Aterpetxea oso txukun dago, eta ez da inbertsio ekonomikorik egin behar. Inbertitu behar dena da denbora, gauzak sustatzeko, eta sormenerako toki bihurtzeko. Zerbait gehiago eman nahi diot Goizuetari, eta ez dut nahi izatea turistentzako toki bat bakarrik; baita herritarrentzat ere.

Berez, inaugurazio bat egin nahi nuen goizuetarrentzat, aurrena beraiei eskaintzeko aterpetxea, kanpora zabaldu baino lehen; baina egoerak ez du ahalbidetu. Niretzako garrantzitsua da aterpetxea herritarrei zabaltzea, eta tailerrak, ikastaroak, ikusentzunezkoen emanaldiak... egin nahi ditut bertan. Zentro

kultural bat izan dadila, non garrantzia eta balioa emanen diogun gure adinekoen jakintzari.

Aterpetxe bat baino gehiago izango da, orduan?

Proiektua ez da bakarrik aterpetxe bat turistentzat. Etortzen direnak, izaten dira askotan mendian ibiltzea gustatzen zaienak, zonaldea pixka bat ezagutzen dutenak... Inguruko jendea, gipuzkoarrak edo nafarrak. Hori indartu nahiko nuke, informazioa bateratu eta webgune txukun bat egin. Baina horrez gain, gauza berriak ere eskaini nahi nituzke. Izan dadila toki bat lasai egoteko eta erlaxatzeko, baina aldi berean kontziente egoteko. Gauzak irakatsi nahiko nituzke; yoga klaseak emanen ditut, adibidez. Horretarako, ganbaran txoko bat ari gara prestatzen, jarduera 'xuabe'etarako, oinutsik egoteko, esterila, manta edo kojinekin. Eta hori ere jendearen eskura egonen da. Esaterako, 'coach' batek erretiro bat egin nahi badu talde txiki batekin, ganbara alokatu dezake, edo aterpetxe osoa, nahi izanez gero.

Tailerrak eta ikastaroak eskaini nahi dituzula diozu. Nolakoak?

Aterpetxetik aparte izanen da hori, nahiz eta txertatu daitekeen baita ere, ikastoletatik taldeak etortzen badira, adibidez.

Baina Iriartenean, eskulanentzako gela bat prestatzen ari da Udala, eta sormenerako aprobetxatu nahiko nuke. Baserrieta-ko eskulangintza landu nahiko nuke. Esaterako, artilea lantzea, hutsetik hasita, haurrekin. Hartu artilea moztu berri, zikin dagoela oraindik, eta prozesu osoa egin: garbitu, orraztu, ireki, berriro elkartu... Eta egin piezaren bat, izan aulki batentzako kojina, zapata batentzako plantilla, faja bat, poltso bat... Eta eskolekin, bestelakoak ere egin daitezke, intsektuentzako hotel bat adibidez. Erraza da egiten, txikia edo haundia, eta etxean edo eskolan jarri daiteke gero. Eta polita da ikustea, nola pixkanaka umetzen dijoazen, eta udaberrian ateratzen hasten diren kumeak. Ideia asko dauzkat, baina horietako batzuetan zentratu behar dut oraingoz.

Irteerak ere antolatu nahi ditut, gauez adibidez, gaua eta iluntasuna sentitzeko, izarrak zer diren konturatzeko... Garai batean ohikoa zen iluntasuna, ez zegoen farolarik, eta gaur egun, edozein txoko ilunek beldurra ematen digu. Eta pedagogia experimentalak ere landu nahi dut, eginez ikastea. Aterpetxearen logoak, barraskiloak, islatzen du nire ideia: motel dijoa, baina adi dago, kontziente da. Ez dut nahi abentura parkerik; ez dugu ezer behar.

Suitzarra zara. Herri txiki batekoa, Goizuetan bezala?

Bai, landa eremu batekoa, Suitzako mendietan. Ni hezi nintzen behin artean, esne gordina-ekin... Antzekotasun haundiak ikusten dizkiot Goizuetarekin. Baserritarrak baserritar dira munduko toki guztietan. Eta horrek, era berean, erraztu egin dit bertakoekin tratua. Oso gustura nago, oso irekiak dira bertakoak. Oso ongi torria sentitu naiz beti.

Zer gustatu zaizu gehien, Goizuetan?

Urumea ibaia. Ausartzen bazara pixka bat barrura egiten, alden-duz kotxean oso eroso joan zaitzekkeen toki horietatik, putzu eta txoko ederrak aurkitu ditzakezu, lasai eta bakar-bakarrik bainatzeko eta egoteko. Eta zonaldea bera, zeinen berdea den. Ez dakit maitasunak eraman ahal izanen ninduen Nafarroako hegoal-dera, adibidez, desertuagoa dela. Nik berdeguneak eta ura behar ditut, gustura egoteko. **K**



Sagardotegietan sagardoaz gozatzeko aukera berreskuratu da txotx denboraldi bereziarekin

Astigarraga eta Hernaniko sagardotegi gehienek atek zabaltu dituzte ekainean, kupeletik edota botilatik sagardoa dastatu ahal izateko, betiere talde txikietan eta segurtasun neurri guztiekin.

URUMEA SAGARDOA

Astigarraga eta Hernaniko sagardotegiek atek ireki edo irekitzeaz dituzte berritoki. Asteburu honetan batzuk atek zabaltzeko dituzte, dagoeneko ireki dituztenak badaude eta beste batzuk datozen egunetan egingo dute irekiera. Beraz, txotx denboraldi berezia hasi zaigu ezohiko hila-beteetan, koronabirusaren pandemiaren ondorioz nahitaezko geldialdia izan ondoren.

Sagardotegi bakoitzak bere arauak ezarri ditu, beti ere segurtasun neurri guztiak beteaz, eta sagardogileek uste dute noiz-bait kupela-sagardoren bat dastatu ahal izango dela, betiere talde txikietan. Sagardotegi batzuk txotx ez egitea erabaki dute.

Honela, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena duen sagardo botila izango da protagonista nagusia. Ekoizleek urte berriaren ezaugarriak azalduko dizkiete kontsumitzaileei, eta jendeak produktua etxera eramateko ere erosi ahal izango du, sagardotegian dastatzeaz eta kontsumitzeaz gain.

Orain, deseskaladaren 3ga-

rreren fasera sartzearekin, sagardotegiak irrikaz irekitzen ari dira, azken 'txotx' a motz geratu zitzaizen bezero batzuei harrera egiteko.

Kupeletik, mahaika edo taldeka gehienez 15 pertsonekin

Sagardotegietan sagardoa kupeletatik dastatu ahal izango da, betiere talde txikietan (gehienez 15 pertsona, eta taldeka edo mahaika) eta segurtasun-neurri guztiekin. Garai txarrak ahazteko asmoz, sagardotegiek erresebak aktibatu dituzte.

Aurreikuspenen arabera, itxieraren ondorioz, iaz baino %50 etekin gutxiago izango zizuten. Horri buelta emateko Hernani eta Astigarragako sagardotegiak buru belarri ari dira lanean eta garai txarrak ahazteko asmoz, sagardotegiek erresebak aktibatu dituzte, eta Sagardoa Routeak erreseba automatikoko motorra eta udako eskaintza martxan jarri du.

Sagardogileak oso ekintzaile onak izan dira beti, eta orain atzean utzi dute joan den apirilean abian jarri zuten ekimena, ezin izan baitzituzten euren es-



Kupeletik txotx egiteko aukera egongo da sagardotegi batzuetan.

tablezimenduak zabaltu. Sagardoa Routek, orduan, sagardo dastatze gidatuak antolatu zituen online. Ideia berezi horrekin bat egin zuen Gipuzkoako Sagardogintza Elkarteak, lurraldeko 40 ekoizle inguru biltzen dituen.

Euskal Sagardoa jatorrizko izenak jakinarazi duenez, bai barrualdean bai terrazetan gehieneko %50eko edukiera errespetatuko dute. Aldiz, beste sagardotegi batzuek, txotx

sasoian soilik zabaltu ohi dutenak, amaitutzat eman dute 2020ko denboraldia.

Joan den astean, sektoreari zuzendutako formakuntza ikastaro trinko bat izan zen, eta 55 sagardotegik hartu zuten parte, atek berriz zabaltzeko protokoloak ezagutzeko.

2019 uztia aurkeztuko da datorren ostegunean Chillida Lekun

Bestetik, datorren ostegunean,

ekainak 11, goizeko 11:00etan, Euskal Sagardoak 2019ko uztia aurkeztuko du Hernaniko Chillida Leku museoan. Sagardotegien Euskal Sagardo botila guztiak bertan izango dira eta ez ohiko egoeratik ateratzen ari diren honetan jendeak dastatu ahal izango dituen Euskal Sagardoaren ezaugarriak azalduko dira.

Ekitaldian botilen aurkezpena egingo da, 2019ko uztak eta botilaratzeak utzitako datuak aipatuz eta sagardoaren ezaugarrien berri emango da, dastatzearekin batera. Horrez gain, Euskal Sagardoa jatorri-deiturak egindako sagardotegien eta sagardo desberdinen katalogoa aurkeztuko du.

Bertan izango dira: Unai Agirre, Euskal Sagardoa jatorri-deiturako koordinatzailea; Oihana Gancerain, Euskal Sagardoa jatorri-deiturako presidentea; Aina Otaño, Euskal Sagardoa jatorri-deiturako presidenteordea, Aitor Intxaurre, Jon Peña eta Juanjo Peciña Euskal Sagardoa jatorri-deiturako zuzendaritzako kideak eta sagardogileak, Felix San Sebastian sagargilea eta jatorri-deiturako zuzendaritzako kidea eta Olatz Mitxelena, Sagardoa Routeko koordinatzailea.

Ondoren, Euskal Sagardoa dastatzeko aukera izango dute gonbidatuak, Mikel Garaizabal sommelierak gidaturik. **K**

Iparragirre Sagardotegia martxan berritoki

Berritoki bueltan garelako ospatzeko
Afaria eta Bertso saioa 35 €
Erresebak 943 55 03 28

Bertso Jarriak eta Berriak
Enaut eta Unai Agirreekin eta Aitor Mendiluzekin.

GAUR
20:30etan

Terraza zabaltzeko eta segurtasun neurri guztiekin, lasai eta erosi egoteko.

IPARRAGIRRE
ZURE 0 KM. SAGARDOA

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

TALLERES JUANTXO
Juan Ignacio Rodríguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa
- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKANTZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Asteleheneetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com